



Nafarroako Dolarea elkarteko sagardogileek 250.000 litro inguru kupeleratu dituzte aurtan.

GIZARTEA

Lesakako Linddurrenbordan irekiko da Nafarroako sagardotegi denboraldia urtarilaren 10ean

Larretxea anaiek dastatuko dute lehen sagardo berria ortziralean

Lesaka | 2014-01-09 | 07:28 | Testua: TTIPI-TTAPA | Argazkia: Artiboko argazkia

Lesakako Linddurrenborda sagardotegian irekiko da ortziralean, urtarilaren 10ean, 2014ko txotxeko sagardotegi denboraldia. 14:30 aldera egingen da ekitaldi ofiziala eta Donato eta Patxi Larretxea anaiak izanen dira sagardo berria dastatzen lehenak. Lesakako Linddurrenbordarekin batera, Lekarozko Larralde, Berueteke Behetxonea, Aldazko Martixonea eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegiek osatzen dute Dolarea, Nafarroako Sagardotegien Elkartea eta aurtan 250.000 litro inguru kupeleratu dituzte. Lesakako Linddurrenborda sagardotegian, berriz, 25.000 litro inguru egin dituztela aipatu digu Juan Mari Lopez nagusiak, "azken urteetan bezalatsu". Bertze sagardotegietan kanpoko sagarra ekarri behar izan badute ere, Lesakakoan dena bertako sagarra erabili dutela aipatu digu, "Lesakatik, Doneztebetik, Arantzatik eta Oiarzundik ekarria". Egurrezko kupelen bat baldin badute ere, Linddurrenbordako gehienak poliestere eta altzairu erdoilezinekoak dira: "Garbitzerako orduan erosoagoak eta seguruagoak dira eta denbora luzeagoan mantentzen dute sagardoa". Lehendik ere bitan ireki da Nafarroako sagardotegi denboraldi ofiziala Linddurrenbordan. 2000. urtean Andoni Egaña bertsolariak ireki zuen eta 2004an Sebastian Gonzalez pilotari azkaindariak. Aurtengoan, berriz, herri kirolarekin harreman estua eta emankorra duten Donato eta Patxi Larretxea anaiak arduratuko dira txotxa irekitzeaz. Aitzinetik, Jo Ala jo taldekoek bere emanaldia eskainiko dute. Nahiz eta ekitaldi ofiziala ortziral honetan izan, hurrengo ortziral arte, urtarilaren 17ra arte ez dira irekiko sagardotegiak.

Geure buruaz | Pribatasun politika | Kontakua

TTIPI-TTAPA | Koskontako bidea, 07 - 1 | 31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel: 948 63 54 58 | Faxe: 948 63 54 57
Diseinua: Ttipi-Ttapa | Garapena: [iametza interaktiboa](#)

Laguntzailea:

